

2025eko HERRI ALDIZKARIA



IZTURITZE

AUZAPEZAREN HITZA

Biztanle agurgarriak,

Herriko Kontseiluaren izenean, azken hauteskundeetan berritu diguzuen konfiantzagatik eskertu nahi zaituztet bihotz-bihotzetik. Zuen sustengua gure herriaren garapena akuilatzeko egiazko iturria da eta gure eguneroko engaiamenduari indar gehiago ematen dio.

2025. urteak burgu barnea antolatzeko lehen lanak abiatzeko bidea eskaini digu elizako aparkalekua sortuz, gaurdanik autobus geltokia eta aparkalekua biltzen dituelarik, baita eliza ahalmen urrikoei helgarri egiten duen egitura ere. Aldi berean, trinketaren argietan eramaniko lanak Harpe Alde gunearen zaharberritze energetikoaren ildotik doaz.

Uda honetan, gure bizi ingurumena hobetuko duten bi ekintza nagusi abiatuko ditugu. Alde batetik, erabilera anitzeko gelaren eta ikasgelen zaharberritze energetiko orokorra, besteak beste hiriko eraikin guzien behar energetikoen parte handia estaliko duen eguzki-instalazio fotovoltaiko bat garatuz, eta bestalde, Harpe Alde gunearen inguruko antolaketa eta segurtasun lanak.

Proiektu horiek gure herriko ondarea zaintzeko engaiamendua irudikatzen dute, araudi eta ingurumen arloko eskakizunak betez, garapen iraunkorreko urraspide batean.

Azkenik, nahi nuke elkarrekin bizitzen segi dezagun, bakoitzaren iritziak errespetatuz. Gure ikuspegien aniztasuna aberastasun bat da eta abantaila bihurtu behar dugu gure kohesioa indartzeko. Eztabaidetara irekiak izan gaitezen eta elkarrekin bizi gaitezen, elkarriketa eta elkarren errespetu giro batean.

Denei, uda ederra opa dizuet eta gure herriaren alde erakusten duzuen engaiamenduagatik eskertzen zaituztet.

Zaindu zuen burua.

Frédéric CAMOU, Auzapeza
Herriko kontseiluko hautetsiak



PROIEKTUAK ETA OBRAK

- **Harpe Alde gunearen bazterrak berriz antolatzea, segur ezartzea eta helgarri egitea**

2022an abiatutako erreferentzia-planaren helburuetariko bat Harpe Alde gunearen bazterrak segur ezartzean datza, herriko jarduera gehienak biltzen dituelarik: ikastetxea, aisialdi zentroa, erabilera anitzeko gela eta trinketa.

Etorkizuneko antolaketa erabiltzaile guziei sarbide segura, zirkulazio lasaia ekipamendu horren inguruan, Hirixka bide segura eta bazterren edertzea ahalbidetuko dute.

Obra horiek ekain erdian hasiko dira eta 2026ko agorrilean bukatuko. Zenbait nahasmendu izanen dira eta behar diren neurri guztiak hartuko ditugu, Departamenduko Kontseiluarekin hitzarturik, nahigabeak ahal bezainbat mugatzeko gisan.



- **Harpe Alde gunearen zaharberritze energetikorako obrak**

2022tik goiti abiatutako lehen lanen ildotik, obra programa handi bat eramanen dugu udan honetan Harpe Alde gunean. Lortutako diru laguntzei eta eskaintza deialdi desberdinei ekarritako emaitza baikorrei esker, zaharberritze energetikorako obren azken urratsa abiatzen ahal dugu (argiak, haizeztatze sistema, isolamendua, teilatua, eguzki-instalazio fotovoltaikoa), ikasgeletan eta erabilera anitzeko gelan.

Lan horiek eramateko, gunea guziz hetsia izanen da uztailaren 6tik irailaren 1era. Garai horretan, Arberoan Alaiki aisialdi zentroaren harrera Aiherrako ikastetxe publikora lekuz aldatuko da, zerbitzuaren jarraipena segurtatzeko Arberoako ibarra osoaren onurako. Jolasgunera beti joaten ahalko da, Hirixka bidera ematen duen portaletik.

Herriko taldeak erabiltzaileak eta biztanleak eskertzen ditu aitzinetik obrak eramateko garai horretan erakutsiko duten gogo onaz.

2025-EKO HERRIAREN KONTU ADMINISTRATIBOAK

2024ko soberakin orokorra : 930 845.71 €

Funtzionamendua

FUNTZIONAMENDU GASTUAK		
011	Izaera orokorreko gastuak	135 449,54
012	Langile-gastuak	253 354,27
014	Etekinen arintzeak	414,00
65	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako gastuak	119 323,19
66	Finantza-gastuak	9 561,98
042	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	13 937,50
GASTUAK OROTARA		532 040,48

FUNTZIONAMENDU SARTZEAK		
70	Zerbitzuen, jabegoen eta salmenten etekinak	173 960,32
73	Zergak	88 841,62
731	Zuzenezko zergak (tokiko zergak barne)	122 063,60
74	Diru-zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte-hartzeak	96 946,22
75	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako etekinak	77 933,76
76	Finantza etekinak	2 090,00
77	Ohiz kanpoko etekinak	634,00
013	Gastuen arintzeak	14 845,20
042	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	411,00
SARTZEAK OROTARA		577 725,72

Inbertsioak

INBERTSIO GASTUAK		
16	Maileguak eta dagozkien zorrak	44 990,77
20	Immobilizazio gorpuzgabeak	17 000,00
Eragiketez kanpoko gastu errealak		61 990,77
	Bide obrak	10 760,76
	Materialaren erosketa	3 384,65
	Herriko eraikinak	4 192,31
	Gainerako obrak	1 338,00
	Herri barnearen berrantolaketa	312 253,08
	Energia berrikuntza	53 060,20
	Elkarteen lokala	393,37
	CLSH bulegoa jostalekuaren berritze	1 781,81
	Herriko larreak	22 450,69
	Hirigoinia	2 634,00
Eragiketen gastu errealak		412 248,87
040	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	411,00
041	Ondare-eragiketak	16 217,07
GASTUAK OROTARA		490 867,71

INBERTSIO SARTZEAK		
10	Diru-zuzkidurak, orotariko funtsak eta erresalbuak	18 956,15
16	Maileguak eta dagozkien zorrak	1 096,00
Eragiketez kanpoko sartzee errealak		20 052,15
	Bide obrak	20 429,00
	Herri barnearen berrantolaketa	74 945,47
	Energia berrikuntza	50 713,50
	CLSH bulegoa jostalekuaren berritze	13 717,04
Eragiketen sartzee errealak		159 805,01
040	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	13 937,50
041	Ondare-eragiketak	16 217,07
SARTZEAK OROTARA		210 011,73

2025eko emaitza orokorra : 695 674.97 €

* Tokiko zergak

	2024ko tasak	2025eko tasak	2025eko oinarriak	2025eko emaitzak
Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga	12,12%	13,09%	52 339	6 851
Bizitegi hutsen gaineko bizitegi-zerga	12,12%	13,09%	17 070	2 234
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ)	23,12%	24,97%	367 973	92 188
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ)	39,39%	42,54%	30 030	12 775
Zergen emaitza orotara				114 048

2026eko HERRIETAKO TOKIKO ZERGEN TASAREN BOZKA

Urtero bezala, tokiko zergen tasa eztabaidatua izan da. 2026. urterako, herriko kontseiluak horiek ez emendatzeko hautua egin du 2026ko apirilaren 18ko biltzarrean.

Haatik, gogorarazi nahi dugu 2024ko urtarrilaren 1ean, Herriko Etxeak hutsik diren bizitegien gaineko bizitegi zerga finkatu duela, bigarren bizitegien eta bizitegi nagusi ez diren mublatuen gaineko bizitegi zergak finkatu ondotik. Geroztik, Herriko Etxea zerga zerbitzuekin harremanetan sartu da, herrian hutsik diren bizitegien eta bigarren bizitegien zerrenda araupetzeko gisan. Ondorioz, zuen egoera kontrolatzea eta, beharrez, eguneratzea eskatzen dizuegu zerga zerbitzuen aldean edo zuen gune pertsonalean “gestion de mon patrimoine” atalean deklaratzuz.


Ohar gisa, 2026ko otsailaren 28ko Euskal Elkargoko kontseiluaren denboran, elkargoko kontseilariak 2025eko zerga tasa luzatzea onartu dute aho batez [jabeko eraikien gaineko lur zerga (%2.93) eta eraiki gabeko jabegoen gaineko lur zerga (%4.06), bizitegi zerga (%9.39) eta enpresen lur kotizazioa (%28.49)]. Halaber, etxe hondakinen biltze zergaren tasa bera mantentzea ere onartu dute aho batez (%10.70) baita ur ingurumenen kudeaketa eta uholdeen prebentzioaren (UIKUP) gaineko 5 milioi euroko mozkina mantentzea ere.

Tasa guzi horiek ageri dira zerga agirian, “intercommunalité” zutabean.

2025-eko HERRIKO ETXEKO DIRULAGUNTZAK

Ikastetxeak	
Arberoa ikastola	7 040
Ikasleen Burasoen Elkarteak	
IBE Arberoa ikastola aitzina	275
Herriko elkarteak	
Abarratia	400
Artetxea	400
Besta komitea	400
Arberoako joaldunak	400
Goratik	400
Bertze elkarteak...	
Arrapitz	100
Les papillons elkarte	37
Bidekoekin solidarité migrants	50
Biga bai	50
CIDFF 64	50
Gurutze Gorria	50
Euskalzaindia	50
Hemen elkarte	100
Herria journal	100
Integrazio batzordea	450
Irulegiko irratia	200
Izpindar	50
Kanaldude	100
Laguntza etxerat	115
Mediabask	100
Sokorri Katolikoa	50
Sos laborari	150
Dirulaguntzak orotara	11 117 €

HERRI ORGANIGRAMA



HAUTETSI ORDEZKARIAK EUSKAL HERRIKO HIRIGUNE ELKARGOAN

Elkargoko arduradun titularra	Gilles HARAN
Elkargoko ordezeko arduraduna	Nadine SOLE
Seignanx-eko eta Euskal Herriko LUKE Sindikateko arduradun titularra	Gilles HARAN
Seignanx-eko eta Euskal Herriko LUKE Sindikateko ordezeko arduraduna	Frédéric CAMOU
Aturri Euskal Herriko Mugikortasun Sindikateko ordezeko arduraduna	Éric MIMIAGUE
Itsasoko aturri behereko Sindikateko ordezeko arduraduna	Frédéric CAMOU
EPN euskal mendi aitzinetik itxuratu Sindikateko arduradun titularra	Gilles HARAN
Aldatu elkarteko arduradun titularra	Gilles HARAN

EGOERA ZIBILA

SORTZEAK

THIEBAUD BISCAICHIPY Luma, 2025eko urtarrilaren 2a sortua, Baionan
VIRESVOLIT Lola, 2025eko urtarrilaren 31 sortua, Baionan
DARRAILLANS Elaia, Isabelle, Arlette 2025eko otsailaren 28a sortua, Baionan
JABELIN Emilia, Florence, Pascale, 2025eko urriaren 1a sortua, Baionan

Goresmenak ematen dizkiegu familia gustiei.

HERRIOTZAK

CARCELLER José-Maria, 2025eko urtarrilaren 14a zendua
AMADE Michel, 2025eko otsailaren 6a zendua, XANTXOTEA
GRATTEPANCHE Serge, 2025eko otsailaren 6a zendua, ELIZALARRIA
DURRUTY Jean, 2025eko agorrilaren 11 zendua, GURE AMETSA
BIDART André, Jean, Batiste, 2025eko azaroaren 13a zendua, URRUTIA
CASEMAJOR née DURRUTY Etienne, 2025eko abenduaren 10a zendua LARRALDIA

Pausa Lekua HERRIOTZAK

BELLO Félicité, 2025eko urtarrilaren 23a zendua	ITCIA Albertine, 2025eko uztailaren 29a zendua
MORROIN Clémence, 2025eko otsailaren 9a zendua	BEUHORRY-SASSUS Marie-Thérèse, 2025eko abenduaren 16a zendua
LARRONDE Ernestine, 2025eko otsailaren 20a zendua	ARGUINDEGUY Pierre, 2025eko abenduaren 18a zendua
BERHO Pierre, Marie, 2025eko otsailaren 20a zendua	DUHALDE née URRUTY Marie-Jeanne, 2025eko abenduaren 26a zendua
LAVALLEE Marguerite, 2025eko uztailaren 11 zendua	
LARRE Maurice, 2025eko uztailaren 22a zendua	

Gure doluminik bizienak desagertze hauetzak diren familia guztiei.

HIRIGINTZA

ERAIKITZEKO BAIMENA

- CALVO ILUNDAIN Violeta: kanpoko zureriak antolatzea eta neurriak aldatzea, zurbeso ageriko apaindura eta zurezko zutabeak gehitzea
- Biziari EULE: laborantza-erakin hetsi bat eraikitzea
- Bordda EULE: laborantza-erakin ireki bat eraikitzea
- HARAMBOURE André: laborantza-erakin erdi ireki bat eraikitzea eta plaka fotovoltaiakoak ezartzea
- TOURATON François: igerileku-etxe bat, baratze-aterpe bat eraikitzea eta igerilekua moldatzea
- SALLABERRY Sandra: garajeko zureria eta atea berina zabal eta ate lerragari batez aldatzea
- MIRANDE Frédéric: eskualdaketa osoa, aitzinaldeko irekidurak eta ageriko zurbesoak aldatzea, sarbidea eta aparkalekua sortzea
- BELLOCQ Jean Claude: ibilgailu aterpe erdi irekia
- GONZALEZ Emma: etxe bat, ibilgailu aterpe bat eta terrazak eraikitzea
- ETCHART Olivier: Chelaytoa etxea zaharberritzea

AITZINETIKAKO DEKLARAZIOAK

- HARAMBOURE André: plaka fotovoltaiakoak
- HARAMBOURE David: plaka fotovoltaiakoak
- LARRABURU François: etxe egiteko lur baztertzea
- DELHOVE Daniel: etxe egiteko lur baztertzea
- AUFFRET Christophe: berinezko leihoaren aldatze eta zurbesoak
- MENDIBOURE Patrick: plaka fotovoltaiakoak
- EARL Etcheparia: plaka fotovoltaiakoak
- ORBEZUA Javier: plaka fotovoltaiakoak
- SALLABERRY Sandra: hesia, hesi landa, eta xeila
- PEREIRA Mickaël: plaka fotovoltaiakoak
- RIVALS Cécile: pergola bioklimatiko baten ezartze
- DACHARY Jean-Pierre: plaka fotovoltaiakoak

Obren bururapena eta araberkotasuna segurtatzen duen deklarazioa

Obren aitzinetikako deklarazio eta Eraikitze baimen oro (eraikitzea, arraberritzea, handitzea, aitzinaldearen aldatzea, etab.) hirigintza-erabaki baten xede izan bada, deklaraturako obren araberkotasuna egiaztatu beharko da.

2022ko bigarren urte laurdenetik, herriak Euskal Hirigune Elkargoko zinpeko langile bati eska diezaiotke kontrol horiek egiteko eta, beharrez, hirigintzako kodearen arau-hausteen agiria egiteko. Oroitarazten da galdegile guziek bi dokumentu aurkeztu behar dituztela; hastapenean, Obrak hastearren deklarazioa eta, bukaeran, Obren Bururapena eta Araberkotasuna Segurtatzen duen Deklarazioa.

Obren aitzinetikako deklarazioa edota Eraikitze baimena aurkezteari buruzko edozein galderaren egiteko, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin, zure eskaera Hazparnealdeko hTHPen araudiarekin bateragarria dela bermatzeko.

GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Definizioa: GEUZak herriko gizarte arazoak kudeatzen ditu. Bere aurrekontu propioa dauka. Auzapeza izaten da honen lehendakaria, eskubide osoz.

9 kidek osatzen dute administrazio kontseilua, horien artean:

5 zinegotzi tituludun: Frédéric Camou, Virginie Légarto, Nickie Lelorec, Monique Lohiague, Karine Malé izengoitiz Cazot.

Zinegotzi ordezkari bat: Myriam Gourgues

Familien, adintsuen eta elbarrituen edo baztertzearen kontra eta gizarteratzearen alde borrokatzen diren **elkarteen 4 ordezkari:** Bernadette Ascery, Claude Candiard, Marie-Pierre Casemajor, Marie-Josée Lacroix.

Esleipenak

Nahitaezkoak: Gizarte Ekintzako dosierak osatu eta departamenduko zerbitzuei helarazi

Hautuzkoak: araudiak “prebentzio eta gizarte-garapenerako ekintza orokor bat” eramateko baimena ematen dio (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-2. artikulua), diru laguntzak esleitzuz “jendetzaren beharrak aztertu” ondotik (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-1. artikulua)

Esleitzeko modalitateak

GEUZak ez du ohiz kanpoko beharrak estimatzeko eskumenik. Beharrez, Hazparneko GEUZari dei egiten dio diagnostiko bat finka dezan.

Diru sartzeak izan daitezke herriak ordaindutako diru laguntza edo dohaintzak edo ondoriotasunez emandakoak

Erabakiak

Saioak ateak hetsirik iragaten dira administratzaileek sekretua gordetzeko egin beharra bete behar baitute. Neurri bakar batek ere ez du GEUZaren bilkura agiriak afixatzera behartzen.

Orotarik

- Apairuen eramatea: Hazparneko GEUZak, Euskal Elkargoaren eskumenaren menpe, erretretan edo ahultasun egoeran (lan geldialdia, ahalmen urritasuna) diren pertsonendako irekia den zerbitzu hori kudea dezake. Harremanetarako: 05 59 70 29 07

- Sareko desmartxa administratiboei (ordenagailu baten eskura ezartzea eta/edo zuzeneko presentzia bidezko laguntza), telelaguntzari eta elkartasunezko asurantzia osagarriari dagokien laguntza eta/edo informazioa proposatzen dira. Ez duda zuen herriko etxera joatean honek zuen galdea tratatuko baitu.

- Zare hornitua: Azken hauek herrian bizi diren eta gutienez 75 urte dituzten adinekoei banatu zaizkie.

- 60 urtetik gorako pertsonendako apairua antolatu zen ekainean, berrogei pertsona inguru elkartzuz. Lagun arteko giroan iragan zen elkar mintzatzeko memento goxoa izan zen.

LURRALDEKO BALIABIDE ZENTROA

Arditeya-Vieil Assantza Lurraldeko Baliabide Zentroa (LBZ), Arditeya-Vieil Assantza elkarteak eramanez, Frantziako LBZen dispoitiboan sartzen da. (<https://solidarites.gouv.fr/centre-de-ressources-territorial>).

LBZaren helburua da adinekoei eskainiriko laguntza indartzea eta kudeatzea, osasuna, beharren ebaluaketa, gerontologia-gaitasuna eta ibilbideen kudeaketaren arloetan. Etxean egoteko bidea sustatzea da xede nagusia. Zerbitzu horrek ongi zahartzean parte hartzen du bizi segurtasun eta kalitate baldintzak eskainiz, bakoitzaren beharrei egokituriko erantzunak ekarriz. Lurraldeko laguntzaileak eta profesionalak ere laguntzen ditu.

2025eko irailean sorturiko Arditeya-Vieil Assantza LBZak Uztartitze, Hazparne eta Kanbo inguruko 25 herritan esku hartzen du. Lurraldean jadanik dauden profesionalen eta zerbitzuen lanaz gain ari da, tokiko baliabideen kudeaketa eta mutualizatzearen ildotik.

Horretarako, arlo anitzeko medikuntzako eta paramedikuntzako talde bat mobilizatua da.

Gaur egun Izturitzeko herriarentzat, BLZko taldeak osasun prebentzioari buruzko tailerrak proposatzen ditu auzoko herrietan (Aiherra, Donamartiri eta Donostiri). Ergoterapeuta bat eta psikomotritzitatean profesional aditu bat etor daitezke etxean azterketak eta ebaluaketak egiteko (adib.: etxea antolatzea, laguntza teknikoak plantan ezartzea, erori ondoko laguntza...). BLZak adineko bat laguntzen dutenei zuzenduriko sustengu ekintzak ere proposatzen ditu.

BLZa baliabide bat da lurraldeko biztanleentzat eta profesionalentzat.

Argibide gehiagorako:

Maidier COUILLET – Marion PHOSTEIN

Arditeya-Vieil Assantza Lurraldeko Baliabide Zentroaren kudeatzaileak

Tel.: 06.46.45.74.97

Helbide@: crt@arditeya-vieilassantza.fr



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA

Arberoan Alaiki aisialdi zentro elebidunak lau herri antolatzaleetatik datozen familien egiazko beharrei erantzuten die (Aiherra, Izturitze, Donostiri eta Donamartiri).

Joan den udan, 93 familiek erabili dute zerbitzua, hots 3 eta 13 urte arteko 129 haur orotara (Izturitzeko 32 haur) uztailaren 7tik agorrilaren 14ra, astelehenetik ostiralera, Izturitzeko "Le petit Prince" ikastetxearekin partekaturiko geletan. ZIGA diploma duen Carmen Carceller zuzendariak, zazpi animatzailek eta hiru AIGA ikastunek dute taldea osatzen.

Haurrak "ohiz kanpoko" garai desberdinetan bidaiatu dira eta garai horiek ezagutu dituzte eskulan, gorputz-adierazpen, kirol, jarduera jostagarri eta ateraldien bitartez. Uda markatu duten ekitaldi nagusiak:

- "Les Sentinelles de la Guivre" Erdi Aroko elkartearen esku hartzea
- Musika tailerrak Estelle ARNIS musikari-animatzailearekin: zenbait musika tresnen ezagutza, kantuak, soinu bandak grabatzea, muntaketa programak erabiltzea...
- Haurrek film bat sortzea eta antzetztea, eta ondotik familiei zuzenduriko emanaldia bazkari partekatu baten inguruan
- 15 haurrek 3 egun eta 2 gaueko egonaldi batean parte hartu dute Baigorriin
- 20 haurrek aisialdi zentroan kanpatu dute gau batez
- Zahar etxeko egoiliarrekin topaketa, magia ikuskizun baten inguruan
- "Le Théâtre du Versant"



konpainiaren esku hartzea aisialdi zentroan: *Ahatetxo itsusia* antzezlan moldatua

- Zenbait ateraldi: Sorde herriko abadia, WowParc, tikientzat, Gixuneko aintzira

Opor ttipiak gai desberdinen inguruan antolatuak izan dira (munduko bestak, izadiaren super-heroiak, Harry Potter), zenbait ekitaldirekin (kirolak, eskulanak, musika, oihaneko ibilaldiak...). Bana beste, 80 haurrek erabiltzen dute zerbitzua garai bakoitzean.



Asteazkenei dagokienez, 2024-2025 ikasturtean, 72 haurrek erabili dute zerbitzua eta kanpoko esku hartzaileek eramandako jardueraz gozatu dute (Natura Elkartea Abeille Verte elkartearen Patricia SAULIrekin, lankidetzak-jokoak Yann OCHOArekin, zirkua Ziliportaka elkartearen Nikorekin). Esku hartzaileez gain, Aurélie Biscaychipy, Audrey Ipu, Estelle Arnis, Karine Hilderal eta Carmen Carceller andereek mota anitzeko jarduerak proposatu dizkiete haurrei. Pausa Lekua zahar etxeko egoiliarrekin antolaturiko belaunaldien arteko topaketak ere berriz abian dira, bi aldiz garai bakoitz.

Ikasturte bukaerako ateraldia Labenneko zooan antolatua izan da. Ikasturtea gurasoekin antolaturiko gaualdi batekin bukatu da. Haurrek zirku tailerren ondoko ikuskizuna eman dute, eta ondotik afari partekatu bat antolatua izan da. Berrogeita hamar bat lagun bildu ziren.

Argibideak nahi izanez gero, Carmen CARCELLER zuzendariarekin harremanetan sartu: arberoanalaiki@isturitz.fr / 07.86.49.00.15. Izturitzeko Herriko Etxearekin ere harremanetan sar zaitezke 05 59 29 62 84 zenbakira deituz aisialdi zentroaren ibilerari buruzko xehetasunak ukaiteko.



BIGABAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOA AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK

Haren funtzionamendua herri bakoitzeko hautetsiz osatua den sindikatu batzorde batek bermatzen du eta, haien artean, Frédéric Camou eta Arño Gastambide auzapezak eta ikasleen burasoen ordezkariak daude. Lehendakaria Arño Gastambide da.

Haurrek ateraldi bat baino gehiago egin dituzte: igerilekua, zinema, ikuskizunak... Ekainean, Aiherran eskolaturiko haurrek Laàsco Enigmen Gaztelua bisitatu dute, izadi erdian kokaturiko eremua, jarduera jostagarri eta kulturekin. Ama eskolako haurrek Bastidako astotegia bisitatu behar zuten, baina ateraldia ezeztatua izan da bero handiagatik.

SIVUak ateraldi horietan diru mailan parte hartzen du (garraioaren, egonaldirendako haur bakoitzeko esleitzen den zenbatekoaren haren gain hartzea).

RPlak, 2025eko sartzean 76 ikasle zituen, honako moldean banatuak:

- **Izturitzeko eskola** (haur eskolatik lehen mailako hirugarren urtera): 37 ikasle, denak elebidunean, irakasle 1 frantsesez, 1 irakasle euskaraz eta 2 ABLA.
- **Aiherrako eskola** (lehen mailako bigarren urtetik bosgarren urtera): 39 ikasle, hauetarik 4 elebakarrean, irakasle 1 frantsesez, irakasle 1 euskaraz.

Irakaskuntza oren parekotasunean da: 12 oren frantsesez eta 12 oren euskaraz, bakoitza bi egunen barnean banaturik. Izen-ematea haurraren bizilekuko Herriko Etxean egiten da.

ERAKUSTEA

Zure haurra "Bigabat" bateratze pedagogikoan eskolatzeko, ikasle kopuru ttipietako geletan izanen da, eta ingurumen kalme eta lasaigarrian ibiliko da. Honi esker, zuek guraso gisa herriko bizitza lotuko zirezte, ezagutza berriak eginen dituzte... Horrela gure herrietako eskolen iraunkortasun lagunduko duzue, eta aldi berean gure baserri eremuko bizitasuna eta erakargarritasuna ere.

BIGABAT bateratze pedagogikoaren zikloak honela banatuak dira:

- **Izturitzeko eskola**: ama-eskola
- **Aiherrako eskola**: lehen mailako lehen urtetik bosgarren urtera
- **Talde pedagogikoa**:
 - Izturitze: Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat, eta 2 ama-eskoleko langile berezitu, denbora oso.
 - Aiherra: Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat.

 Zure haurra frantses hitzseko sailean edo euskara-frantsesa sail elebidunean ezartzen ahal duzue. Elebidunean, irakaskuntza oren parekotasunean egiten da: 12 oren frantsesez, 12 oren euskaraz.

Oñarra: Elebitasun goiztiarra, elebitasunari buruzko atea da: Haurtzarotik euskara ikasteak, frantsesarekin betan, hirugarren hizkuntza baten ikastea errentuko du.



BATERATZE PEDAGOGIKOAREN ABANTAILAK

Irakasleka maila kopuruak apaltzeari esker haurra hobeki inguratua da eta laguntza berezitua du

Kolegiara pasatzean errexkiago egokitzen dira

Maila bereko ikasleek artean emulazioa bada

2 urtetik goiti haurren eskolatzeko baldintza hobetuta egiten da



FUNTZIONAMENDUA

Eskola bakoitzean den zaindegia haurrak errezibitzen ditu 7:30etatik goiti. Arratsan, 18:15 arte irekia da.

Goizean: 1€ - Arratsaldean: 1€



Eskolako jantegia ere eskola bakoitzean segurtatua da. Langile kalifikatuak ikasleak zainitzen dituzte bazkari denboran.

Lotura autobus batek haurren garraioa segurtatzen du eskola batetik bestera, segurtasun baldintza hoberekin, joan-jin bakoitz laguntzaile batekin.

GAINERATEKO GAIAK

Haur ttipiak eskolari egokitu bi urtetik goiti

Haur ttipiek haien biharko eskola ezagutzeko aukera ukan dezaten...

Egokitzeko egun erdi bat edo gehiago proposatua zaio haur bakoitzari, eskolaren ezagutza egin dezan, lekuak eta hezkuntza taldearekin batera. Mundu berri horretan goxoki sartzeko manera. Ez duda, hitzordua har ezazue eskolako zuzendariarekin.



Asteazkenetan

Arberoan Alaiki asialdi zentroa idekia izanen da Izturitzen, asteazken guzti bakantzetatik kanpo. Kirol eta kultur ekintzak proposatuak izanen dira.

Milesker Carmen Carceller, zuzendariari igortzea mail bat, zenbaki unterak: alsh@isturitz.fr 07.86.49.00.15.

BARREMANAK

Izturitze: CASTILLON Bruno
Tél. 05 59 29 45 97 edo 09 67 78 45 97



Aiherra: BRENOT Emilie
Tél. 05 59 29 42 13

Zuzendariak zure zerbitzuko gelditzen dira edozein argitasun edo hitzordurendako. Aipatzen, herriko etxean behar duzue zure haurraren izena eman.

Urtero bezala, BIGA BAT guraso elkarteak ekintzak eraman ditu Aiherran eta Izturitzen. Horri esker, gure haurren alde engaiatzen ahal gara eta ezagutza berriak egiteko aukera proposatzen ahal diegu.

Urtarrilaren 10ean: 2025eko urte hastapena ospatzeko, haurrak eta gurasoak Aiherrako gelan bildu dira bazkari partekatu baten inguruan. Gure haurrek bi ikastetxeen arteko ekitaldiak partekatzen dituzte. Horrelako ekitaldiak proposatzea zentzuzkoa iruditzen zaigu trukaketak sustatzeko eta auzokoak hobeki ezagutzeko.

Otsailaren 9an: "Tous avec Agosti" elkartearekin lankidetzat bat proposatu dugu (ospitaleratze luze baten denboran familiak aterpetzeko laguntza), mus txapelketa bat Izturitzeko denen gelan.

Elkar laguntza horri esker, denen gaitasunak elkartu ahal izan ditugu ekitaldia proposatzeko eta antolatzeko. Arrakasta bildu du txapelketak 78 talde parte hartzaileekin, berezitasuna zelarik bigarren mailako txapelketan ere dirua irabazten ahal zela!

Martxoaren 31n: Bigarren aldikotz, Pazkoko gaiarekin loturan, enigma ihizi bat proposatu dugu Izturitzeko burguan gaindi. Ibilaldia eta asmakariak, sariaz gozatzeko! Familian bizitzeko une goxoa, haurren topaketa sustatzeko eskolalditik kanpo.

Maiatzaren 1ean: Ohiko oinezko ibilaldia eta maiatz loreen salmenta Aiherran. Ibilbide desberdinetan 330 parte hartzaile eramateko atsegina izan dugu! Eguzkiak egunaz guziz gozatzeko bidea eskaini digu. Badu zenbait urte guraso elkarteak elkarrekin baten faboretan diru ekarpen bat egiteko xedea duela. 2024an "Tous avec Agosti" elkarteak hautatu dugu, baina eguraldi txarrak antolaturiko ibilaldia egiteko eta orduan elkarteari diru laguntza ekartzeko bidea ez zigun utzi. 2025ean eginga da.

Ekainaren 15ean: Guraso elkarteak plantxak piztu ditu talo salmahai bat proposatzeko Aiherrako bestetako igandean! Guraso talde bat karraskan aritu da herritarren gosea asetzeko!

Ekainaren 20an: Eskolako besta Izturitzeko denen gelan iragan da. Elkarretaratzeko une nagusia haur eta gurasoentzat, hainbat ekitaldirekin: ikuskizun bat, kermeza bat eta bazkari partekatua, guraso guzien parte hartzeari esker.

Azaroaren 30ean: Jostailu azoka bat antolatua izan da goiz oso batez Aiherrako jantegian. Gurasoei luzaturiko emaitza deialdi bati esker, liburu, mahai joko eta ernatzeko joko aukera zabala proposatu ahal izan dugu. Prezio ttipia aukeratzeak Eguberri lasaiki antolatzea ahalbidetu du.

Abenduaren 19an: Guraso elkarteak Olentzerori dei egin dio menditik jaits dadin eta bere ikazkin jarduera bazter utz dezan une gormanta partekatzeko, kantuz, bi ikastetxeetako haurrekin. Ikastetxe bakoitzak opariak ukan ditu: euskarazko liburuak, dokumental-liburuak, mahai jokoak eta ikasketa-jokoak.

Biltegi handiago bat erabiltzeko idatzizko eskaeraren ondorioz, Izturitzeko Herriko Etxeak baikorki erantzun digu. Elkarteak bere esku duen material guzia gela bakar batean bil dezake. Herriko Etxea eskertzen dugu gure elkarte-beharrei erantzuteagatik.

Bide batez, ekitaldietan mobilizatzen diren eta sustatzen gaituzten guraso guziaz ere eskertzen ditugu. Baita bi herrietako herritarrak ere, eramaten ditugun ekitaldietara etortzean sustatzen gaituztelarik.

ARBEROA IKASTOLA AINTZINA



Arberoa Ikastola Aintzina, Izturitzeko ikasleek gurasoekin osatutzen duten elkarte bat da. Arberoa ikastola-ren (Donamartirin kokatua den euskarazko murgiltze eredu herriarteko eskola) sustapena eta laguntza ditu helburu.

Urtero hainbat ekitaldi antolatzen dira :

- ikastolaren funtzionamendua finantzatzeko ahalbidetuko duen dohaintzak biltzeko (3 ATSEM langileen soldatak, material eta horniduren erosketak, askariak, etab.) - gure herriko bizian parte hartzeko

- herrian euskarari toki bat emateko

Aurten, Izturitzeko plazan, Arberoa Eguna kari, ikastolako haurrek eta Pelax musikariak konzertu bat eskaini dute. Horrez gain, pintxo gauak, Gau Beltza, Eguberriko merkata eta Eguberriko gauraldia *Izan* taldearekin, antolatu dira.

Arberoa Ikastola-ko hezkuntza proiektuak Komunikazio Ez Bortitza (KEB), autonomiaren eta nortasunaren garapena eta ingurumenaren errespetua ditu ardatz (hondakinen bereizketa, konpostatzea, baratzea, askari biologiko partekatua, etab.).

2008ko irailean ireki zen (lehen sartzeko 5 ikasleekin) eta 2024/2025 ikasturtean 55 haurrek hasi zuten eskola.

Ikastolari buruz eta horren baitan diren proiektuei buruz gehiago jakiteko, gure webgunea kontsulta dezakezue:

www.arberoaikastola.org

Arberoa Ikastola-ren funtzionamenduari buruz galderarik egin nahi badituzue, zuzenean harremanetan jar zaitezkeite Ikastolarekin : 05.59.29.76.23 edo guraso batekin : Nikolas Lafitte / Joëlle Garra : 05.47.02.48.32

HERRIKO ELKARTEEN BIZIA



BESTA KOMITEA

2025ean, besta batzordeak zenbait proiektu antolatu ditu.

Ekainean, paella gualdi bat antolatu dugu Top 14 errugbi txapelketaren finala kari. Hurbildu ziren lagunek Bixente CARCELLER besta batzordeko sukaldari ofizialak apailaturiko paella goxoa dastatu ahal izan dute.

Urrian iragan dira ohiko herriko bestak. Urtero bezala, bestak ostiral arratsean hasi dira.

Ostiraleko lehen parterako, Artetxeak tokiko ekoizleen merkatua mantendu du, asteroko ostiralean bezala. Ondotik, talo/fritak eta edantegi gualdia kari, KALUME txarangak alaiturik, herritarrek eta besteek asteburua iragarri duen gualdi ederraz gozatu dute!

Larunbat goizean arroltze moleta famatua antolatu dugu, bezperako goiztiar guzien papilentzat gozamen. Zikiroari dagokionez, aurten lehen aldikotz XAHETA txaranga errezibitu dugu, eta trinketa osoa dantzan jartzen jakin du!

Ondotik EDANTZA taldeak dantzaldia animatu du goizeko 05:00ak arte!

Urtero bezala, igandean ohiko bazkari kantatuaz gozatu dugu, TXITXIRIOAK txarangak alaiturik eta Artetxeak antolaturik. Igande arratsean berriz izan da paella afaria, asteburuko gehiegikeriak ezabatu edo arindu nahi zituztenentzat aukera goxoa!

Urtea herritarren bazkariarekin bukatu da urriaren 11n, larunbata, bazkari goxo baten inguruan!

Batzordeak boluntario eta lauzkari guziak eskertu nahi ditu haien parte hartzeagatik. Aurten gurekin bildu diren gazteei ere, eskerrik beroenak!

Ikustate handia erakutsi nahi dizuegu zuei, herritarrei, zuen eskuzabaltasuna, parte hartzea eta umore onagatik! Laster arte!



IZTURITZEKO GORATIK IHIZI BAIMENDUKO HERRIKO ELKARTEA

2024/2025 sasoiaren denboran, ihizi xeheko ihiziarekin batera, berrogeita hamar bat basurde hil izan dira (horietako hamabi bat Izturitzen) gure ihizi elkarte kide den herriarteko eremuan, 6 herri biltzen dituelarik.

Orkatz ihizia, bere aldetik, bakar ihizian (hurbiltzea / barranda) eta talde ihizian (uxaldia) praktikatu da, 50/50 inguruko banaketarekin ihizi plana gauzatzeko.

Ihizi tokiak hobeki markatzeko gisan, segurtasuna hobetuz (tiroak hobeki bideratuak direlarik hupaturiko tokietatik), ihizi elkarteak hamar bat begiratoki jarri ditu herrian.



Ingurumenaren aldeko ekintzei dagokienez, 2025eko udan zehar, herriko zenbait bideren gainetik luzatzen ziren aldaxkak eta zuhaitzak moztuak izan dira (trontza zerra + aldaxka xehagailua), traktore / xehagailu itzulikaria errazago erabili ahal izateko (uda bukaeran urtero eginga den lana), landaretza ez dadin gehiago hedatu eta biderik ez dezan hetsi.

Hamabi bat parte hartzaile (ihiztari, ibiltari edo herriko biztanle) bildu dira kari horretara eta ekintza berriz antolatua izanen da 2026an.

Aitzineko urteetan bezala, baimenduriko ihiziaren herriko elkarteak zenbait basurdeki ekoizkin saltzen ditu (axoa, lukainkak, saltxitxoak eta pateak).

2024/2025 sasoiaren denboran, bi herritar (horietako bat neska gaztea) gure elkartean sartu dira eta herrian antolaturiko talde ihizietan maiz parte hartu dute. Herriko ihiztarien bana besteko adina apaltzeaz gain, arras ongi moldatu dira taldean, errazki eta laster.

Interesatuak direnak ihizia ezagutzera etor daitezke gure herriko ihiztari bat(zu)ekin (bakar ihizia / ihizi larriko uxaldia) eta, zergatik ez, aldi berean, ihizi baimena edo/eta arku ihizian aritzeko formakuntza lortu, edota baimenduriko zepo ezarle bilakatu (adibidez).



ARTETXEA

Aurten ere, Artetxea elkarteak kultura egitarau aberats eta zabal bat eskaini du, jende guzientzat. Bertsoak, musika, dantza edo antzerkia bezalako ekitaldien bidez, herriko eta Arberoa ibarreko bizian parte hartu du.

Urteko egitaraua:

Otsailaren 7an: Euskal Herriko MUS
Apirilaren 4an : Labur metrai proiektzioak
Maiatzaren 16an: Bertso afaria
Uztailaren 11n: Arroltze moleta txapelketa
Abuztuaren 29an: Buuzbu + Joseba Irazoki kontzertua
Irailaren 6an: Elkarleen foroa + Bertso saioa

Urriaren 4an: Antzerkia
Urriaren 5ean: Kantu bazkaria
Urriaren 31n: Gau Beltza
Azaroaren 7an: Mintzaldia – Peio Berterretxe
Abenduaren 5ean: PERKAIN dokumentalaren proiektzioa

Beste elkarte batzuek antolatu ekitaldiak:

Ostiral guzietan : Merkatua (Arberoako ekoizleak)
Martxoaren 6an: Kabezudo dokumentala
Martxoaren 21ean: Udaberri zehar (Arberoan zehar)
Ekainaren 6an: Kabaret gaua (Arberoan zehar)

Urriaren 24an: Arberoan zehar
Abenduaren 19an: Eguberriko merkatua eta gaudiak
(Arberoa Ikastola)



Urtean zehar, beste jarduerak batzuk ere badira: arte plastika kurtsoak, komunikazio ez bortitzeko tailerrak, helduentzako euskara kurtsoak, "Artetxea kantuz" kantu taldea, eta step saioak.

Elkarleen helburu nagusia euskararen sustatzea da. Aldi berean, herria biziarazten du, ekitaldi desberdinen bidez.

Informazio gehiago nahi badituzue, hurbildu elkartearen kide batengana edo jin zuzenean Artetxera !

LABORARIEN GANIK ABIATURIK IZTURITZEKO MERKATUA

Merkatu hau abiatu zen duela hiru urte Artetxea elkartearen barnean. Aterbea ere bada negurako.

Arberoa ibarreko beste laborari eta tokiko artisau batzuek zaitze geroztik, **etxe ekoizpen fresko andana batekin heldu dira ostiral arrats guziz, arratseko 6ak eta 7ak et'ardi artean** : ogiak, barazkiak, ardi gasna eta iaurtak, behi gasnak eta esnekiak, eztiak, oilaskoak, garagarnoa,



ahuntz gasnak, xerriak, sagar jusa, bixkotx txikiak...

Arberoan **6 kilometro barneko eremuan** ekoiztuak dira eta etxalde gehienak laborantza biologikoan engaiatuak dira.

Hilabeteko lehen ostiralarekin, lekuko elkarteek janaria eta kulturaren inguruko ekitaldiak proposatzen dituzte.

Laster arte !

ARBEROAKO JOALDUNAK

Joaldunek sasoinen arabera segitzen dugu gure inguruen fifikatzen, 2025-ean.

Arberoako ihauterietan parte hartu dugu.

Maiatzean, bigarren aldikotz Bilboko alde zaharreko pestetara gomiatuak izan gira, hango karrikak gure soinuez alaituz !

Abendoan, eguberriko merkatuan parte hartu dugu, Isturitzeko karrikak alaituz, Olentzero, Mari Domingi ta haurren kantuekin batera.

Tulun, Tulun berriz ere entzunen gaituzue !!





Biltzen dituen 77 kide eta boluntarioekin, Erberua elkarteak eginkizun handia betetzen du gure herriko animazioan.

Pala txapelketa kudeatzen du 5 hilabetez azarotik apirilera. Urteko ibilaldia antolatzen du urriko azken igandean. Ttipia kafetegia ere kudeatzen du 2024ko urriaren 1etik goiti, eta urte osoan zehar.

2024/2025eko pala zabal txapelketa

84 taldek parte hartu dute txapelketan. 2024ko azaroaren 13an hasi da eta 2025eko apirilaren 12an bukatu, animazio handia herriarentzat, non Ipar Euskal Herriko eta Landesetako herri ugarietako jendea topatzen den.

Joan Cantegrelek izen emateen kudeaketa eta egutegia finkatzea segurtatu du. Egin duen lanaz loriatu gara, jakinez lehen urtean urriarik zela.

Philippe Garispek gibelaturiko partidak kudeatu ditu; Carmen eta Marie-Pierrek edantegiaren ordutegia kudeatu dute eta Dominiquek erosketak.

Epaileak eta haien arduradunak bihotz-bihotzetik eskertzen ditugu, baita edantegiko boluntarioak ere haien parte hartzeagatik.

Finalen egunean, gelan harturiko hurrupaldiaren ondotik, 42 lagun bildu gara Lekuineko Erramundea jatetxean bazkari goxo baten inguruan, giro biziki goxoa.

Boluntarioen ateraldia 2025eko uztailaren 5ean, larunbata

Ortzaizeko Asteburua jatetxera joan gara bazkaltzeko. 34 lagun ginen. Eguna arras ongi pasa da, giro bikainean.

2025eko urriaren 26ko ibilaldia

Iaz bezala, eguraldiak ez digu eguna nahi bezala eramateko bidea utzi. Hala ere, parte hartzaileak loriaturik ziren.

223 parte hartzaile, horietako 132 ibiltari eta 91 mendiko bizikletari, haurrak eta helduak.

Bigarren aldikotz, Senpereko "Maison Goxa Leku" elkarteak hautatu dugu izen emate irabazien hartzaile gisa (izen ematearen kostua: 1 €).

Minbizia duten erien laguntzea, ongizatea, topaketak eta partekatzea sustatzeko bidea eskainiko du.

Eskerrik beroenak:

- Boluntarioei, egunean berean lagundu dutelarik aparkalekuan, izena emateko, hornigaiak emateko, segurtasun guneetan, ostalaritzan, sukaldariak laguntzeko, eguna arrakastatsua izan dadin

- Beren lurretatik iragaten uzten diguten jabeei

- Ibilbideak garbitzeko, sasiak mozteko bildu direnei

- Jean Michel eta Sylvain Donapetryri, beren soroa esku utzi digutelarik ibilgailuak aparkatzen uzteko.

Egun horrek 77 lagunengatik mobilizazioa eskatu du.

TTIPIA kafetegia

Belaunaldi desberdinetako jendeen arteko topaketa eta trukaketa gune berri hori irekia da 2024ko urriaren 1etik goiti. Elkartekideei eta beren gomitei kafe, te edo alkoholik gabeko edari baten inguruan biltzeko bidea eskaintzen die, 5 €ko urteko sariaren truk.

9:00etatik 12:00etara irekia da boluntarioak libro diren heinean. Azken horiek gelak garbitzen dituzte eta soropila artatzen.

Hobekuntza batzuk eginak izan dira, hala nola kanpoko mahaien konponketa (Jean Pierre Mazainek eskutik); baita Ttipia kafetegia seinalatzen duen taula ere, Jean Pierre Dacharyk eginik eta ezarririk. Biak bihotz-bihotzetik eskertzen ditugu.



ABARRATIA

Abarratia elkarteak bere 2026ko biltzar nagusia antolatu du Aiherrako Denen Etxean, kide, partaide eta tokiko ordezkarien ondoan. Urteko hitzordu horrek iraganiko urtearen emaitza baikorrak eta etorkizuneko aukerak aurkezteko bidea eman du.

Elkarte dinamikoa eta engaiatua

Elkarteak 83 lizentziadun biltzen ditu, %40 neskak direlarik, lurraldeko zenbait herritan banaturik. Bere ibilera boluntario engaiatuz osaturiko talde batean oinarritzen da, hala bulegoaren heinean nola kirol arduradunen artean, adin guzietan egokituriko trebatzeekin.

Ekitaldiz beteriko 2025. urtea

Ekitaldi ugari aldizkatu dira sasoiaren zehar:

- lagun arteko txapelketak antolatzea, besteak beste Denek Bat elkartearekin,
- kultura-ekimen batzuetan parte hartzea, hala nola Euskaraldia,
- Ipar Euskal Herriko gazteen finalak antolatzea,
- euskal pilotari buruzko gaualdiak eta bideo emanaldiak,
- mota anitzeko kirolak garatzea, hala nola Pasaka.

Orotara, 500 partida jokatu dira lurraldeko leku desberdinetan.

Kirol emaitza ederrak

Talde bat baino gehiago aipagarri bihurtu dira txapelketetan:

- munduko txapeldun bat,
- zenbait sari gazte eta senior sailetan,
- goi mailako finalak.

Emaitza horiek elkartearen bizkortasuna eta formakuntzaren kalitatearen lekuko dira.

Proiektu ausartak 2026. urterako

Elkarteak bere garapena aitzina eraman nahi du, honakoen bidez:

- txapelketa berriak antolatzea, frontball saileko elkarte barneko 4. txapelketa,
- pilotan hasteko saioak berriz antolatzea (besteak beste Pasaka),
- txapelketa ofizialak aterpetzea,
- bere tokiko erroztatzea sendotzea Aiherra, Izturitze eta Donoztiriko herrietan.

Elkarteak boluntarioei ere dei egiten die, besteak beste nesken sailez arduratzeko.

Horrela, tokiko kirol- eta elkarte-bizitzan betetzen duen eginkizuna berresten du Abarratiak, emaitza onak, lagun artekoasuna eta euskal pilotaren kultura transmititzeko.

ARGIBIDEAK

ALOKATZEEN PREZIOAK

Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
Egun erdia	200 €	400 €
Egun osoa	350 €	700 €
Gutierrez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
"On Egin" kantina	100 €	200 €

TRINKETEA

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €
Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €
Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urririk da herritarrendako.

TRINKETEAREN IREKITZEKO

1. Deitu 06 67 90 19 88 zenbakira, kuxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.
 2. Jostatu trinketea.
 3. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.
 4. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.
- Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hobereanean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

GUZTIENTZAKO GELA

Herriko elkarteek urrik baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herritarrei urrik uzten zaie ehorzketa askarien kariatara. Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio. Gelaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekia uzteko.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaiak + aulkiak) urrik prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

JOSTALEKUA

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan. Erabil daiteke asteazkenetan, 18:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik, jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldean erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA

	Goiza	Arratsaldea
Astelehena	8:00 – 12:30	
Astearte	8:30 – 12:30	13:30 – 17:00
Asteazkena		
Ortzeguna	8:00 – 12:30	
Ortzirala	8:00 – 12:30	13:30 – 18:00

HILERRIA

Bi hilobi libro dira. Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin.

HILERRIKO KONTZESIOA

Familiako hilobia baldin baduzue, jabetasun titulua baduzuela segurtatu ezazu. Azken hau zuen ondokoei emangarria izanen da.

Hilobi kontzesio bat, hilerri batean zendu dena lurperatzeko erreserbatua den tokia da. Herriko etxeak esleitzen du 30 urteko iraupenerako. Kontzesioa familia batek edo partikular batek eros dezake eta ofizialki erregistratua izan behar da.

Usu, erregularizatzea kontzesioa ez delarik formalki erregistratua izan gertatzen da, edo dokumentu administratiboak osatugabeak edo galduak direlarik. Erregularizatzerik gabe, hilobian lanak egiteko, kontzesioa berritzeko edo ondokoei eskubideak transmititzeko zailtasunak egon daitezke.

Lehen etapa herriko etxeko gure idazkariarengana hurbiltzea da, hark beharrezko informazioa eta bete beharreko formularioak emanen baitzikizue.

HERRIKO IKASLE LAGUNTZAK

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guzietan galdegina zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatze agiria eman behar dira). "Prépa" edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzeko ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guzietan ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzeko izena eman zuten ikasleei.



HERRIAREN LAGUNTZA AIGA DIPLOMAREN UKATEKO

Herriko Etxeak 2024ko otsailaren 3an deliberatu zuen Animatzaile Izateko Gaitasun Agiriaren (AIGA) kostuaren zati bat (200 €) finantzatzeko laguntzea, herrian bizi diren 16 urtez goitiko gazteentzat, familiaren zergapeko irabaziak edozein izan daitezkeen.

Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin, eta dokumentu hauek aurkez itzazu:

- Formakuntza izena eman izanaren agiria
- Bizilekuaren frogagiria
- Bankuko nortasun agiria

ERROLDA, "DEFENTSA ETA HERRITARTASUNA" EGUNA

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errola dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

HERRIKO BERRIAK

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak: isturits-com@outlook.fr

HERRIAREN WEBGUNEAREN BERRIZ EGITEA

Izturitzeko webgunea berriz landua izan da, bere ikusmen nortasuna arraberritzeko diseinu grafiko berri bat ezarriz eta bere nabigazio arkitektura hobetzeko funtzionalitate berriak emanez, bere osotasuna aberasturik edukiak gehituz. Webgunean diren tematika guztiak antolatutik dira ikuspegi orokor batean agertzeko harrera web orrialdean, horri esker sinpleki (eta intuitiboki) erabiltzen da. Gainerat, ainitz erlaitzen bitartez informazio egokiak atzematen dira. Interneten denek bete beharreko desmarta administratiboak egiteko funtzionalitateak errexki atzematen laguntzen du diseinu berri horrek. Herriaren webgunean aurkitzen ahal dira zernahi informazio, hala nola argibideak galdegin hirigintza desmarte, hondakinen bilketaz edo ezagutu autobus ibilaldien ordutegiak, elkarteak, animazioak baita xehetasunak ukan eskolari buruz, aisialdi zentroari buruz ere edota Herriaren berri guztiak. Bisitatzeraz gonbidatzen zaituztegu, ondoko lotura segituz www.isturitz.fr.



AURKITEGIA

Herriko Etxea.....	05.59.29.62.84	mairie@isturitz.fr
Arberoan Alaiki.....	07.86.49.00.15	alsh@isturitz.fr
Le Petit Prince eskola publikoa.....	05.59.29.45.97	ce.0640918A@ac-bordeaux.fr
Gela eta trinketa alokatzeko.....	06.67.90.19.88	mairie@isturitz.fr
Pausa Lekua zahar etxea.....	05.59.70.27.00	aapava@orange.fr
Ura eta saneamendua.....	05.59.29.17.72	regie-eau-secteur4@communauté-paysbasque.fr
Etxe-hondakinak.....	05.59.57.11.80	dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr
Mugikortasunen sindikatua.....	05.59.44.77.77	transportsscolaires@communaute-paysbasque.fr
Hazparnealdeko Lurralde Eremua..	05.59.29.16.47	contact@communaute-paysbasque.fr